

# SORMEN TAILERRA

**Sormen Tailer hau Covid 19 birusaren ondorioz gaur egun bizi dugun egoera zein den kontutan izanda prestatu dugu**

## **1/ JARDUERA PROPOSATZEN DUENAREN DATUAK:**

**Aurkezlearen izena:** ANDONI MUTILOA

**NAN zkia.:** 44143083B

**Posta elektronikoa:** mutiloa@hotmail.com

**Tfnoa.:** 655748789

## **2/ PROPOSATZEN DEN JARDUERARI BURUZKO LABURPENA:**

- **Jardueraren izena:** Sormen Tailerra

- **Bigarren Hezkuntzako edo Oinarrizko Lanbide Heziketarako zein mailatara edo zein adinetara dago zuzendua:** bigarren hezkuntzako lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak.

- **Zein balio sustatzen ditu bereziki:** sormena, auto-ezagutza, norberaren emozioekin konektatzea, gorputza sentitzea, genero berdintasuna, errespetua, komunikazioa, arreta lantzea eta talde lana.

- **Curriculumeko zein ikasgairekin ditu loturak:** euskara, hizkuntza eta literatura, gorputz hezkuntza, artea, etika eta baloreak

- **Zein da ekitaldi bakoitzaren prezioa, guztira:**

SAIO BAT: 150 € + %10EKO BEZA (165€)

5 SAIO: 600 EURO + %10EKO BEZA (660€)

## **3/ JARDUERAREN DESKRIBAPENA:**

**Sormenak gure hezkuntza sisteman duen hutsunea nabarmena da. Are gehiago, DBHtik aurrera, disziplina artistikoek gero eta leku gutxiago dute kurrikulumean eta klaseetan. Horrez gain, nerabeek gabezia ugari izaten dituzte sarritan: komunikaziorako gaitasun egokiaren falta, enpatia eza, euren emozioekin konektatzen ez jakitea, auto-estimua ahula... Horregatik, sormen tailer hauen bitartez, ikasleei tresnak eman nahi dizkiegu euren burua eta gorputza hobeto ezagutu eta**

sentitzeko, euren klasekideekin **errespetuan oinarritutako harremanak** garatzeko eta bizitzako edozein esparrutan **arazoei aurre egiten ikasteko**.

Sormenaren esparrua oso zabala denez, **3 arloren inguruan** antolatu ditugu tailer honetan landuko ditugun proposamenak eta ariketak:

1- **Hitza:** Idazketa librea. Auto-ezagutzarekin lotura duen idazketa. Sormena bultzatzeko ariketak. Ahozko komunikazioa.

2- **Mugimendua:** Gorputza sentitu. Meditazio gidatuak. Dantza librea eta koreografiak.

3- **Hitza eta mugimendua:** Antzerkia. Inprobisazioak. Jolasa. Zentzumenak esnatu.

Sormen Tailer hau **%100 praktikoa** da. Ez dugu teoriarik landuko. Hainbat disziplina artistikotan (**antzerkia, dantza, literatura, idazketa, plastika**) oinarritutako **ariketa ezberdinak** proposatuko dizkiegu ikasleei.

#### **4/ JARDUERAREN ALDERDI ARTISTIKO-KULTURALARI BURUZKO TXOSTENA:**

Proposatutako tailer hauen bitartez, **sormena balorean jarri** nahi dugu. Sarritan sormena artistekin soilik lotzen dugu, baina beste edozein lan esparrutan (eta bizitzan) ere ezinbestekoa da sortzaile izatea eta irudimena erabiltzea. Izan ere, **pertsona guztiek dugu sortzeko gaitasuna**, baina sarritan ez gara horretaz jabetzen, edo okerrago, gaitasunik ez dugula pentsa dezakegu. Horregatik, tailer honetan **sormena lantzeko** (eta berreskuratzeko) **ariketak proposatuko** dizkiegu ikasleei.

Horrez gain, artean eta bereziki **sormen prozesuetan sakontzeko asmoa** dugu. Artearen mundua hain zabala eta anitza izanik, eta gure baliabideak ere mugatuak direla kontutan izanda, disziplina zehatz batzuetan oinarritu gara tailer hauek antolatzerakoan: **idazketa, dantza eta antzerkia**. Beste disziplina batzuk ere landuko ditugu, plastika edo argazkigintza, esate baterako, baina euren presentzia mugatuagoa izango da. Eta disziplina horiekin batera, **ahozko komunikazioak** ere garrantzia handia izango du.

Sormen Tailerra **5 saiotan** antolatu dugu. **Ordu t'erdi- bi orduko iraupena** duten saio horiek **unitate didaktiko bakarra osatzen dute**. Lehen 4 saioek kontzeptu baten inguruko lanketa egiten dute:

1- **Sormena:** Zer da sormena. Nor da sortzailea.

2- **Emozioekin konektatzen:** Auto-ezagutza. Nire esperientzietatik abiatuta sortzea.

3- **Mugak:** Zer gertatzen da gure burua mugatzerakoan. Nola erabil ditzakegu mugak sortzerakoan.

4- **Irudimena eta inprobisazioa:** Sormen prozesuetarako teknika ezberdinak lantzen.

Eta **bostgarren saioan**, ikasleekin **ebaluaketa** egitea proposatzen dugu, aurreko 4 saioetan zer ikasi duten, ikasitakoa nola barneratu duten eta ezagutza horrek praktikan zer eragin izan(go) duen aztertzeko.

Gure ustez, **egokiena unitate didaktiko osoa lantzea** litzateke (5 saioak), baina eskola bakoitzak dituen nahi eta beharren arabera moldatzeko gaitasuna du gure proposamenak eta horregatik saio bakarra ala bi egitea ere posible litzateke.

Gure tailerretan zer nolako ariketak egingo ditugun azaltzeko asmoz, **lehen saioa modu zehatzagoan** aurkeztuko dugu jarraian.

## **LEHEN SAIOA: SORMENA**

1- **Zer da artista izatea?** Nortzuk dira artistak?

- **Zer da sormena?** Nortzuk dira sortzaileak?

Galdera horietan oinarrituta, gogoeta egingo dugu denon artean (hitz eginez). Sormena denek dugun gaitasuna dela frogatuko dugu. **Tailerraren aurkezpena.**

2- **Nor naiz? Nolakoa naiz? Zeintzuk dira nire zaletasunak? Zertan naiz ona?** Idatzizko ariketa, momentuan egiteko.

3- **Zentzumenak esnatzen:** Meditazio laburra. Ondoren, klasetik gimnasia (edo jolas-tokira) joango gara. **Isilik**, gainontzeko zentzumenei arreta eskainiz. Bertan, galdera: zerk piztu du gure arreta bidean?

4- Taldean egiteko **hainbat ariketa:**

- **Gorputza aktibatzen.**

- **Objektu baten erabilera ezberdinak.**

- Objektu horretan oinarrituta, **istorio bat sortuko dugu katean**, denon artean.

- Aurreko ariketan oinarrituta, **istorio edo esaldi bat aukeratu eta mugimendura eramango dugu.** Hitzik gabeko partitura bat sortuko du ikasle bakoitzak.

- Musika ezberdinak erabiliz, **partitura horrekin jolasean** arituko gara. Hasieran errepikatuz eta ondoren moldatuz eta inprobisatuz.

- Rudolf Von Labanen **esfortzuen inguruko ariketa praktikoa**. 4 esfortzu aurkeztu (**presioa, flotatu, astindu, labaindu**), bakoitzaren berezitasunak aztertu eta horietan oinarrituta dantza proposamena.

- **Klasera itzuli, isilik, bakoitzak nahi duen eran**, landutako ariketetan oinarrituta: dantzan, animalien modura, atzeruntz ibiltzen...

- Saio osoan landutako eta ikasitakoaren inguruko **bilduma** egin eta agurra.

Aurkeztu berri duguna, esan bezala, lehen saioaren egitura litzateke. Baina beti **talde bakoitzaren berezitasunen eta beharren arabera moldatuko** ginateke.

**Garrantzitsua:** eskolaren batek antolatu ditugun beste 3 saioen inguruko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, gustu handiz emango genioke gure proposamenaren berri.

## **5/ JARDUERAREN ARLO PEDAGOGIKOARI BURUZKO TXOSTENA:**

Sarritan **sormena** arlo artistikoarekin soilik lotzen dugun arren, **bere eragina beste esparru batzuetara ere iristen** da. Enpresa munduan, adibidez, egunerokoan izaten dituzten **arazoei aurre egiteko, sormena ezinbestekoa** izaten dute. Izan ere, pertsona sortzaileak izanez gero, gauzak “betiko moduan” ikusi ordez, gure ikuspegia asko zabal daiteke, eta horrek eragin handia izan lezake gure pentsamoldean eta jokaeran.

Sormen tailerra prestatzerakoan **Eusko Jaurlaritzaren Heziberri 2020 Hezkuntza Eredu Pedagogikoa** kontutan izan dugu gure **helburuak zehazterakoan:**

- **Ikasleei euren burua hobeto ezagutzeko tresnak eskaintzea.**

- **Barruko emozioekin konektatzea** eta gorputza benetan **sentitzea.**

- **Komunikaziorako gaitasuna lantzea.**

- **Jolasa** sormen tresna moduan erabiltzea eta **kontrola galdu gabe** jolasten ikastea.

- **Genero berdintasunaren kontzientzia areagotzea**, sexu ezberdinen rola aztertuz eta horiek zalantzan jarriz.

- **Errespetua eta enpatia** sustatzea.

- **Aniztasun funtzionala dutenen aldeko sentsibilizazioa** areagotzea, pertsona horien azalean sartzeko ariketen bitartez.
  - **Talde-lana indartzea** jolas kooperatiboen bitartez, eta lehiakortasuna ekidinez.
  - **Auto-estimua** lantzea, sortzeko gai direla irakatsiz.
  - **Irudimena eta inprobisazioa** lantzea, gauzak modu askotara egin daitezkeela azalduz.
  - Zentzumenetatik abiatuta, **arreta lantzea**, modu indibidualean eta taldean.
  - Disziplina artistiko ezberdinak ezagutzea eta **sortzaileen lana balorean jartzea**, sormen prozesuen atzean disziplina eta esfortzua dagoela ikustaraziz.
- \* **Oharra:** Sormen Tailer hau **antzerkiaren atalean** sartzeari proposatu dugu, **disziplina artistiko ezberdinak** uztartzen dituen arren (antzerkia, idazketa eta dantza), antzerkigintza horien guztien **nahasketa** delako.

## 6/ PROPOSAMENAREN EGILEAREN IBILBIDE PROFESIONALA ETA ANTZEKO LANETAN AZALDUTAKO ESPERIENTZIA:

**Sormenak berebiziko garrantzia** du niretzat. **Umea nintzela**, argi nuen zer izan nahi nuen handitzerakoan: **aktore eta abeslari**. Eta asmo horiek bultzatuta, antzerkiko ikastaro batean eman nuen izena 11 urterekin. Garbi Losada izan zen nire lehen irakaslea eta orduetik **harreman intermitentea** izan dut **antzerkiarekin**: Lasarteko Kukuka, EHUko antzerki klaseak, Donostia Kulturak antolatutako ikastaroak, Musikomera, Artedramak Aulestin antolatzen duen Antzerki Laborategia, Zestoako Antzerki Eskola... **Dantzak**, berriz, **pisu handiagoa** izan du nire bizitzan: fandango eta arin-arin txapelketak, Donostiako Eskola dantza taldea, funkyko klaseak, dantza garaikidea, kontakt inprobisazioa. Askok zor diot dantzari, batez ere arlo pertsonalean. Hori bai, duela gutxirarte antzerkia eta dantza zaletasuna izan dira niretzat. **Afizioa**. Izan ere, **kazetaritza eta magisteritza ikasi** nituen, eta bi esparru horietan aritu izan naiz lanean batez ere ia 20 urtez. **Ofizioa**.

2017an, ordea, Euskadi Irratian **eszedentzia** hartzea erabaki nuen. Atsedeen luzea. Egia esan, ez neukan argi zertarako. Baina orduetik **sormenari merezitako tokia** eskaintzen ari naiz nire egunerokoan. Prozesu luze eta aberasgarri horren **emaitza Esnatu Naiz kabareta** izan da, nire lehen ikuskizuna. Eta hortxe nabil une honetan, **emanaldiak eskaintzen** inguruko hiri eta herrietan. **Gozatzen** eta gozarazten.

Aldi berean, urte hauetan bildutako **ezagutzak eta bizipenak partekatzeko unea** iritsi dela sentitu dut. Eta **Sormen Tailer** hau horren **ondorioa** da, kazetari eta

irakasle lanetan aritzeak emandako esperientzian eta egindako ikastaro eta formakuntzetan oinarritu naizelako proiektu hau prestatzerakoan. Proposatzen ditudan ariketa guztiak ikasitakoaren emaitza dira eta niri lagundu didaten moduan, ikasleentzat baliagarriak izango direla espero dut.

**ANDONI MUTILOA** (Hernani, 1976)

**Ikasketak:**

- Kazetaritzan lizentziatua (EHU. 1999)
- Atzerriko Hizkuntzako Magisteritzan diplomatua (EHU. 2004)

**Lana:**

***Kazetari moduan:***

- Euskadi Irratiko esatari eta erredaktore 8 urtez (2009-2017)
- Gaztea irratiko esataria 6 urtez (2001-2007)
- ETBko hainbat saiotako erredaktore: Hitzaro/Lengua Viva, informatiboak, Esta Es Mi Gente...

***Irakasle moduan:***

- Ingeleseko eta plastikako irakaslea Iruneko Txingudi eskolan (2008-2009)
- Euskara irakaslea Boiseko ikastolan (Idaho. AEBak. 2007-2008)
- Ordezko irakaslea EAeko hainbat eskola publikotan (2006-2007)
- Euskal dantzako irakaslea Oiartzungo Elizalde eskolan (2006-2007)
- Kontakt inprobisazioko tailerretako irakaslea (2016-2020)

***Artista moduan:***

- **Esnatu Naiz** kabaretaren sortzaile, gidoilari, zuzendari eta aktorea. Estreinaldia, 2020ko urtarrilean Donostiako Poltsiko Antzerki jaialdian.
- Antzerkia, dantza, musika, kantua, performancea eta ikus-entzunezkoak lantzen dituen **Elur Etxearen** sortzailea (2020).
- Esnatu Naiz kabareterako egindako **Maitasunez Blai** kantuaren sortzailea, Eñaut Gaztañagarekin batera.
- Errenteriako Eztena jaialdiko **Aldarri** sorkuntza. (antzerkia eta dantza) 2019.
- **Florida** (aktorea). Zestoako Antzerki eskola. Zuzendaria, Amancay Gaztañaga 2019.

- **Dantzian Bat** kolektiboko kidea. Performanceak naturan + bideoa 2018-2019.
- **Dantza garaikidea** 13 urtez 2008-2020
- **Kontakt inprobisazioa** 8 urtez 2013-2020. EHKIE elkarteko bazkidea.
- **Donostiako Eskola Dantza taldeko** kidea 15 urtez (1990-2005).

## **7/ JARDUERA GAUZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN BALDINTZAK ETA BALIABIDEAK:**

Sormen Tailerra **ohiko eskola orduetan** izateaz gain, **ikastetxean bertan egitea** proposatzen dugu, bertako eraikinaz eta inguruaz baliatuz. **Ikasleen ohiko gela eta gimnasioa** erabiltzea litzateke gure asmoa. Hori dela eta, tailerra **heziketa fisikoko klaseetan** egitea egokiena litzatekeela iruditzen zaigu, baina **malgutasun osoa** dugu beste klase batzuetan egiteko. Are gehiago, **ordutegiak ikastetxearekin batera adostuko** genituzke, euren nahi eta beharrei egokituta.

Lehen aipatu dugun moduan, **unitate didaktiko osoa 5 saiokoa** litzateke (4 saio + ebaluazioa). **Astero saio bat** egitea da gure proposamena, modu horretara ikasleek landutakoa barneratzeko astia izango lukete eta, aldi berean, ez litzateke denbora gehiegi pasako saio batetik bestera. Baina horretan ere **malguak** gara eta ikastetxeak saioak bi astetik behin egitea nahiago balu, gu prest horretarako ere.

**Material aldetik gauza gutxiren beharra** dugu gure tailerra egiteko: musika jartzeko tresna (ordenagailua izan liteke) eta bozgorailua. Horrez gain, ikasleek kuadernoa eta boligrafoa, margoak eta arropa erosoak ekarri beharko lituzkete. Ahalik eta material gutxien erabiltzen saiatuko gara tailer honetan, sortzeko batez ere irudimena eta gogoia behar ditugulako.

Eta gogoratu nahi dugu Sormen Tailer hau **Covid 19 birusaren** ondorioz gaur egun bizi dugun egoera zein den kontutan izanda osatu dugula. Ikasleen arteko gutxieneko distantziak errespetatzeaz gain, **ikastetxeko ohiko protokoloa** beteko genuke, **segurtasuna** uneoro bermatzeko.

## **8/ JARDUERA BAKOITZAREN AURREKONTUA EDO PREZIOA.**

Sormen Tailerraren aurrekontua egiterakoan, **hainbat alderdi** izan ditugu **kontutan**:

- Ikerketa **txostena** prestatzeko **15 ordu** behar izan ditugu. (ordu bakoitza 50 €)
- Beste aditu batzuen **aholkularitza** izan dugun arren, **doakoa** izan da, kasu honetan.
- **Material gutxi** erabiliko dugunez, horrek merketu egiten du aurrekontua.
- Sormen tailerreko **unitate didaktikoaren edukia** ere **balioan** jarri nahi izan dugu eta horri prezio bat jarri diogu: 500 euro.
- **Saio bakoitza** egiteko beharko dugun denbora: **4 ordu**, bidaia barne. Ordua: 30€
- **Dietak**: joan etorriak, kotxeko gastuak, bulego lana... : aurrekontu osoaren %8.
- Txostena prestatzeko behar izan digun orduak eta unitate didaktikoaren edukia erabiltzeko prezioa ikastetxe ezberdinetan egingo ditugun saio guztien artean banatu behar dugunez, eta horrez gain **aurrekontu egokia eta neurrikoa** egin nahi dugula kontutan izanda, saio bakoitzeko 20 € aurreikusi ditugu.

Eta aipatutako arlo guztiak kontutan izanda, **aurrekontua** zehaztu dugu:

- **SAIO BAT: 150 € + %10EKO BEZA (165€)**
- **5 SAIO: 600 EURO + %10EKO BEZA (660€)**

## **9/ PROPOSATUTAKO JARDUERAREN DOKUMENTU BISUALA.**

Sormen tailer hau, bere osotasunean, **Kultura Eskola deialdirako espreski prestatuta** dagoenez, oraindik **ez daukagu dokumentu bisualik**. Baina bertan proposatu ditugun ariketak beste ikastaro batzuetan irakatsi izan ditugu eta aukeratu ditugun **argazki hauek** ideia zehatzago bat egiteko **baliagarriak** izango zaizkizue:

**Dantza / antzerkia Irungo Txingudi eskolan (2009)**





**Dantzan Bat kolektiboaren performancea Bardeetan (2018)**



**Kontakt inprobisazioa Naturan (2018)**

